



Andoaingo Udala



EHBilduk eta Elkarrekin-Podemosen akordioa lortu dute 2025ko aurrekontuak onartzeko

Andoainen, 25-01-24.- 2025. urterako udal aurrekontuak adostu dituzte EHBilduren udal gobernua eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Guztira 27.952145 euroko aurrekontua izango da. Andoain guztiontzat bizigarri izateko erronka, plan eta proiektu multzoa jaso dira bertan. Gainera, aurreko urteko gerakinarekin ere kontaktzen du Udalak. Herriaren etorkizunerako ezinbesteko ikusten diren eraikuntza eta proiektuak garatuko dira bertatik.

Horrela, aurrekontu hauek estrategikoko bati erantzuteko balioko dute: Zerbitzu publikoak indartzea.

- Zerbitzu publikoak indartu: Andoaingo hezkuntza publikoko eraikinen azpiegiturak hobetzeko partida ekonomikoa handitzea.

Aurrekontu hauen bidez udal zerbitzu publikoak sendotzeko apustua egiten da, egonkortasun-prozesuen bidez lanpostuak egonkortu eta lan baldintzak hobetzen direlarik.